

LANAURREKO TAILERRAK

SALTOKIKO SALTZAILEA

100 ordu: 50 teoriko eta 50 praktiko



DATAK:

Teoria: urriaren 9tik 23ra.
Praktika: Urriaren 24a eta azaroaren 10a bitartean. (praktiketako tokia eta ordutegiaren arabera egunen bat lehenago amaitu liteke).

ORDUTEGIA:

Teoria: 9:30etik 14:30era (astelehenetik ostiralera).

Praktika: ordutegi aukera zabala edukitzea beharrezkoa da (astelehenetik larunbatera).

LEKUA:

Teoria: Grupo Eulen enpresako instalazioak (Mutiloa industrialdea, I kaleko 5. eraikina).

Praktikak: Nafarroako enpresatan. Leku batetik bestera joan-etortzeko aukera edukitzea beharrezkoa da.

Emalea: GRUPO EULEN.

Plazak: gehienez 15 pertsona.

MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONAK ARTATZEA

60 ordu teoriko-praktiko



TEORIA: (35 ordu)

Datak: urriaren 16tik 26ra, biak barne.

Ordutegia: 9:15etik 13:15era.

Lekua: Ibaialdeko lokalak Ibaialde Pasealekua z.g. Mutiloa.

PRAKTIKAK: (25 ordu).

Datak: pertsona bakoitzak 5 egun. ADACENek

zehaztuko ditu egunak urriaren 27tik azaroaren 17ra bitartean.

Ordutegia: Pertsona bakoitzak ondorengo ordutegiak egingen ditu txandaka:

1.- 10:00 - 15:00

2.- 16:30 - 21:30

Lekua: ADACEN zentroa. Zolina bidea kalea z.g Mutiloa.

Emalea: ADACEN (Garun Lesioen Nafarroako Elkartea).

Plazak: gehienez 15 pertsona.



IKASTARO INTEGRALA: BILTEGIKO EKIPOAK

40 ordu teoriko-praktiko

Orga jasotzailea erabiltzeko prestakuntza eta biltegiak kudeatzeko oinarrizko ezagutzak.

Datak: azaroaren 13tik 24ra.

Ordutegia: 9:30etik 13:30era astelehenetik ostiralera.

Lekua: Reybesa (Arazuri-Orkoi industrialdea C kalea, 29. eta 34. zenbakiak).

Plazak: gehienez 15 pertsona.

ENPLEGU PLANEKO LANAURREKO TAILERRAK, ARANGUREN IBARREKO UDALA

IZEN-EMATEAK: IRAILAK 21 eta 22
NOLA? 012ra deituta, 8:00etatik 19:00etara

OHARRA: Diruz lagundutako ikastaro hauek (4 €/ordu teorikoa eta 6 €/ordu praktikoa), Aranguren Ibarrean erroldatuta eta langabezian dauden pertsonari zuzenduta daude. Halaber, Aranguren Ibarreko enplegu-poltsan alta emanda eta indarrean egon beharko dira.

Lehentasuna emanen zaie aurreko baldintzak bete eta aurretik Enplegu Planetik antolatutako **beste lanaurreko ikastaro batean parte hartu ez dutenei**, epe luzeko langabetuei eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik lehentasunezko jotzen diren bestelako kasuei.



ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

Mutiloa plaza z/g, Mutiloa
(Aranguren Ibarra)

ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera,
9:00etatik 14:00etara. - Telefonoa: 948 151 382

AUTOENPLEGUA SUSTATUZ

“SORTU ZURE DENDA ON LINE WORDPRESS ETA WOOCOMMERCE ERABILITA”

30 ordu

Haien denda on line sortu edota produktuak edo zerbitzuak eguneko 24 orduetan munduko edozein tokitan saldu nahi dituzten pertsona ekintzaileei zuzendutako ikastaroa da. Internetek eskaintzen duen aukera zabala aprobetsatuz, gaur egun gehien erabiltzen diren plataformak baliatuko dira: Wordpress eta Woocommerce.

Datak: urriaren 2tik 26ra (astelehenetik ostegunera).

Ordutegia: 19:00etatik 21:00etara.

Lekua: Kultur Etxea. Eguzki plaza z.g. Mutiloa.

Emalea: Rubén Lara Alzórriz.

Plazak: gehienez 12 pertsona.

Oharra: Ikastaro hau EZ DAGO DIRUZ LAGUNDUA, baina DOAKOIA da izena ematen dutenentzat.

Pertsona bakoitzak bere ordenagailu eramangarria ekarri beharko du.

GAZTE BERMEA SISTEMA

Gazte Bermea sistema ekimen europarra da, beren ikasketak amaitu edo langabezian gelditu diren 30 urtetik beherako gazteei lan merkatuko sarrera errazteko helburua duena.

SARTZEKO BALDINTZAK:

- » 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.
- » Lanean, ikasten edo formaziorik jasotzen ez aritzea. Utzi eta bi egunetara eman dezakezu izena.
- » NAN edo AIZ izatea, posta elektronikoa eta telefono mugikorra.
- » Espainiako herritartasuna edo Europar Batasuneko hiritartasuna izatea. Atzerritarrak diren pertsonak ere izena eman ahalko dute lanerako gaitzen dituen bizitzeko baimena dutenean.

** Izena emateko edota programa honi buruzko informazio gehiago jasotzeko Aranguren Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin harremanetan jarri zaitezke 948 151382 telefonora deituta.**

A25-emakumeenganako indarkeriaren aurkako I. Kontakizun laburren lehiaketa

(literatura eta aldarrikapenerako tarte bat gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren alde)



Aranguren Ibarreko Gizarte Zerbitzuetako Zinegotzigoak azaroaren 25a, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko eguna, ospatzeko eta jendartea emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan sentikortzeko, A25-Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako I. Kontakizun Laburren Lehiaketa abiatu du.

Lanak ondorengoekin lotutako gaiak jorratu beharko dituzte:

- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna.
- Erantzunkidetasuna familia inguruan.
- Genero Indarkeriaren aurkako borroka.
- Berdintasunez elkarbizitzeko testuinguruak.
- Pertsonen garapen integrala.
- Emakumeen parte-hartze soziala, politikoa eta lan parte-hartzea.

- Lanak aurkezteko epea 2017ko irailaren 25etik azaroaren 3ra izanen da, biak barne.
- Gehienez ere, pertsona bakoitzeko 3 kontakizun aurkeztu ahalko dira Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan.
- Lanak jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan beharko dira baita aurretik saritu gabeak ere.
- Parte-hartzeko bi kategoria ezartzen dira, bata 16 eta 18 urte bitartekoa eta, bestea, 18 urtetik gorakoa.
- Kategoria bakoitzeko sari bat emanen da, 8 hazbeteko tablet-a, alegia.
- Kontakizun laburra gazteleraz edo euskaraz aurkeztu ahalko da.
- Irabazten duten kontakizunak azaroaren 25a dela eta Kultur Etxean egingo den saio berezian irakurriko dira.

Anima zaitetz eta parte hartu!! Zure kontakizunaren zain gaude!!

****LEHIAKETAREN OINARRIAK OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAN (UDALETXEKO LEHENENGO SOLAIRUAN) ETA UDALEKO WEB ORRIAN WWW.ARANGUREN.ES ESKURAGARRI DAUDE****



ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA
GENERO BERDINTASUNAREN ALDE
Informazioa eta aholkularitza 948 15 13 82 telefonoan

»HELDUENTZAKO ALFABETATZE IKASTAROA



Ikastaro hau irakurketa edota idazkera sendotu eta kalkulu matematikoaren oinarrizko ezagutzak ikasi nahi dutenentzako zuzendua dago baita haien gizarte eta kultura inguruan parte-hartzea ahalbidetzen dieten oinarrizko ezagutza maila eduki eta bizitzan zehar ikasten jarraitu nahi duten helduentzako ere.

Prestakuntza “José M^a Iribarren” Helduen Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko irakasleek emanen dute.

Lekua: Mutiloako Jubilotekako aretoetan (Osasun Etxeko azpialdea).

Ordutegia: astelehen eta asteazkenak 15:30etik 17:30era.

MATRIKULA:

Irailak 5.

Lekua: Aranguren Ibarreko Jubilotekako aretoetan (Mutiloako Osasun Etxeko azpialdea).

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.

Irailaren 1etik 13ra: C.P.E.B.P.A. “José M^a Iribarren” ikastetxean - Bartolomé de Carranza kalea, 5. 31008 Iruña. Telefonoa: 848 43 04 00.

Informazio gehiago: ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA (Mutiloa plaza z.g. Mutiloa, Telefonoa: 948151382).

»PINTURA ETA ZAHARBERRITZE IKASTAROAK:

Aranguren Ibarreko 18 urtetik gorakoei zuzenduak.



HELDUENTZAKO PINTURA IKASTAROA (120 ordu)

1 Taldea: astearte eta osteguna, 10:00 – 12:00.

2 Taldea: astearte eta osteguna, 16:00 – 18:00.

3 Taldea: astearte eta osteguna, 18:00 – 20:00.

Data: hasiera urriaren 3an

Ikastaroaren kostua: Aranguren Ibarrean erroldatuak: 227 €
Aranguren Ibarrean erroldatu GABEAK: 454 €

ZAHARBERRITZE IKASTAROA (100 ordu)

2 eta 3 taldeak: BETEAK.

1 Taldea: asteazkena 9:30-13:00. Hasiera urriaren 4an.

4 Taldea: ostirala 16:30 – 20:00 . Hasiera urriaren 6an.

Ikastaroaren kostua: Aranguren Ibarrean erroldatuak: 168 €
Aranguren Ibarrean erroldatu GABEAK: 336 €



IZEN-EMATEAK 012AREN BIDEZ EGINGO DIRA, 8:00etatik 19:00etara

IRAILAREN 18 ETA 19AN (Aranguren Ibarrean errolaturik daudenentzako) eta IRAILAREN 20AN (errolatu gabeentzako)

Plazak mugatuak dira izen-emate hurrenkeraren arabera.

Behin **012tik** plaza baieztatzen denean, **012an** bertan ikastaroa ordaindu beharko da Visa bidez edo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuan eskuragarri dagoen ordainketa karta hartuz.

Ordainketa osorik edo zatikatua (bi epetan) egin ahalko da. Azken aukera hori hartuz gero, **012an** kontu zenbakia eman beharko da.



TXALOPOTE LUDOTEKA

(URRIA - EKAINA)

Eskola hasierarekin batera "Txalopote Ludoteka"-k bere ateak zabaltzen dizkie 2006 eta 2014 urteen artean jaiotako (bi urteak barne) eta denbora librean jolas eta jarduera ezberdinak egin nahi dituzten Aranguren Ibarreko haur guztiei.

Jarduera ezberdinak egingo ditugu adina oinarriztat hartuz:

4-7 urte bitarteko taldea: Esploratzaile Txikiak.

8-12 urte bitarteko taldea: Aisia eta denbora librearen Kluba.

↳ LUDOTEKA-IDOI PLAZAKO LOKALAK

ORDUTEGIAK:

Astelehena: 17:00etatik 19:00etara INGELESA.

Astearte: 17:00etatik 19:00etara GAZTELANIA.

Asteazkena: 17:00etatik 19:00etara INGELESA.

Osteguna: 17:00etatik 19:00etara EUSKERA. Euskarazko ludoteka bi talderentzat egingo da, bakoitzean gehienez ere 10 haur izanik:

1 Taldea: D eredu haurrei zuzendua.

2 Taldea: A eredu haurrei zuzendua (gutxienez, 8 haur beharko dira jarduera egin ahal izateko).

Ostirala: 17:00etatik 19:00etara GAZTELANIA-EUSKERA.

IREKITZE FESTA (merendola, jolasak eta animazioa):

Urriak 6, ostirala, 17:00etan.

Bukaera: ekainak 15, ostirala.

Kuotak: 25 € urtekoa.

7€ hilabetekoa, izen-emateak plazak egonez gero.

1€ egun solteak, izen-emateak plazak egonez gero.



↳ LUDOTEKA LARUNBATETAN

(Kultur Etxeko kanpoko gela, Eguzki plaza, Mutiloa)

ORDUTEGIAK:

Larunbata: 17:00etatik 19:00etara

Hasiera: urriak 7

Kuota: 10 € urtea

Bukaera: ekainak 16

Oharra: Gutxienez, 10 haurrek izen-ematea eskatzen da Ludoteka zerbitzua eman ahal izateko eta 20 haur gehienez ludoteka zerbitzu bakoitzerako.



LUDOTXIKI

(AZAROA - EKAINA)

Ludotxiki Aranguren Ibarreko haurrei zuzendutako jolaserako gunea da, 0-3 urte bitartekoentzako. Gune horretan, haurrek beti heldu batekin egon behar dute eta heldu horrek haurra bere zaintzapean izan beharko du.

↳ Ludotxiki Txalopote Ludotekako lokal berean dago (Idoi plazan, Mutiloan). Plazak mugatuak izanen dira.

HASIERA: AZAROAK 7

Bukaera: ekainak 14

Egunak: Astearte eta ostegunak

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara

Kuota: 10 €.

Oharra: Gutxienez, 5 familiek izena eman beharko dute zerbitzua eman ahal izateko, eta gehienez ere 10 familiek.

KUOTAREN ORDAINKETA: Kuota ludotekara joan eta lehenengo egun horretan ordainduko da gelan bertan.

IZEN-EMATEAK TXALOPOTE LUDOTEKA, LUDOTXIKI ETA LUDOTEKA LARUNBATETAN **Irailak 21 eta 22**

012ra deituta 8:00etatik 19:00etara. Plazarik egonez gero, jarduerako lehen egunean izena eman ahalko da. Plazak mugatuak izanen dira eta behar izanez gero, zozketa egingen da.



AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA:

Irailaren 15ean, ostiralean, berriro ere martxan jarriko dugu Aranguren Ibarrean erroldatuta dauden 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako aholkularitza psikologiko zerbitzua.

Zerbitzu honek familiako eta jendarteko harremanak hobetzen laguntzen du eta honako alderdi hauek jorrazteko aholkularitza ematen du: autoestimua, gaitasun sozialak, estresa eta antsietatea, beldurrak, egoera depresiboak, aldaketei egokitzea, elikadurarekin lotutako nahasdurak, menpekotasunak...

ZERBITZUA ERABILTZeko, ALDEZ AURRETIK HITZORDUA HARTU BEHARKO DA ARANETXEAN (ARANGUREN IBARREKO GAZTEDIAREN ETXEAN), KALE NAGUSIA 2 BIS. TELEFONOA: 948237558. ZERBITZUA OSTIRAL ARRATSALDETAN IZANGO DA 17:30ETIK 19:30ERA.